

## NATURA ETA GIZAKIA

Gaizka Amondorain

*Arantzazu, 13 urte*

Gaur egunean dago  
zikin ingurua  
gizakiak daukagu  
guztian errua  
horrela bizitzea  
ez da segurua  
guzti hau egiteko  
non dugu burua.

Ezin daiteke egon  
txarrago mundua  
zeozer egiteko  
heldu da ordua  
lurra garbitu eta  
ahaztu dirua  
bestela izango da  
gutzat infernua.

Infernua daukagu  
denok merezia  
nik behintzat ez nuke nahi  
horrela hiltzia  
industriaz daukagu  
beteta guztia  
oraindik badaukagu  
guk zer ikasia.

Zabortegien falta  
ibaira zaborra  
hau ikustea e(g)in zait  
benetan gogorra  
horiek merezi dute  
kristoren zigorra  
guk e(g)iten dugu ta  
beharko izorra.

Zintzo eta garbia  
da animalia  
beraien egoera  
zein penagarria  
guzti honen errua  
da alferkeria  
hau konpontzeko behar  
dugu miraria.

Denok bizi gaitezen  
garbien modura  
ingurua zaintzeko  
behar da ardura  
konponduko ote den  
badaukat nik duda  
gure lurra zaintzeko  
garaia heldu da.

Apurtu beharrean  
«capa de ozono»a  
nik zaindu egiten dut  
ez bainaiz leloa

nuklear guzti horien  
aldera banoa  
eguzkia nahi nuke  
eta ez lainoa.

Kaltegarria duen  
froga nuklearra  
inoiz ez dut ulertu  
beronen beharra  
bonba horrek utzi du  
giroa zakarra  
ni behintzat kontra nago  
ta ez naiz bakarra.

Chirac-i nahi nioke  
luzatu galdera  
zer pentsatzen duzu, ba,  
lortzea horrela?  
natura apurtzeko  
zer nolako era  
hori ulertzen duen  
bakarra da bera.

Natura arazoa  
hemen ere bada  
arrainik ez badago  
nolako patxada  
arrantza inguruan  
desastre bat gara  
bizi beharko gara  
nola edo hala.

Arrantzaren problemak  
ez dauka graziarik  
inon ez da aurkitzen  
gaur irtenbiderik  
modu kaltegarritan  
ez e(g)in arrantzarik  
gaur egunean ez da  
behar bolantarik.

Gaur pozik joan gara  
guztiok mendira  
beldurrez ibili naiz  
lurrera begira  
hango paper zikinak  
guztionak dira  
mendia zabortegei  
bihurtzen ari da.

Ez dugu bota behar  
zaborrik lurrera  
lurra garbi eduki  
goizetik gauera  
alfer bizimodua  
etzazu aukera  
hori ez duzu eta  
bizitzeko era.

Baso guztiak erre  
hau da hau ganora  
horiek berriz hazteko  
gurañe denbora  
gero egurren bila  
hemendik kanpora  
dirua erretzea  
baino txarrago da.

Ez da poztutekoa  
gaurko egoera  
garbi edo zikina  
zuk duzu aukera  
azkenik nahiko nuke  
bukatu horrela  
mundua garbitu ta  
baita pentsakera.